

Gasteizen, 1996ko irailaren 27an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua
Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea
Knörr, E., idazkaria
Arana, J.A., diruzaina
Altuna, P.
Charritton, P.
Davant, J.L.
Diharce, X.
Goenaga, P.
Irigoyen, A.
Kintana, X.
Krutwig, F.
Larre, E.
Oihartzabal, B.
Ondarra, P.
Peillen, Tx.
Salaburu, P.
Sarasola, I.
Satrustegi, J.M.
Villasante, L.
Lizundia, J.L., idazkariordea
Zearreta, J.J., ekonomia eragilea

Gasteizko udaletxean, 1996ko irailaren 27an, goizeko hamarretan, bildu da Euskaltzaindia. Aldamenean aipatzen diren euskaltzainak etorri dira. Ezin etorria adierazi dute Miren Azkaratek eta Juan San Martinek.

Agiriak

Uztaileko bi agiriak onartu dira, Charritton, Davant, Irigoyen eta Oihartzabal jaun-en oharrak jaso ondoren.

Hiztegi Batua

Diapositiba-dotrina hitz saila, uztailean banatua, eztabaidatu da egungo batzarrean. Pello Salaburu mintzatu da batzordearen izenean lehenik, baina gero, beste batzar batera joan behar izan duenez, Ibon Sarasolak hartu du eginkizun hori. E. Knörrek igorriko oharrak, berandu iritsi zirenak, sartu dira batzar karpetan.

Batzordeak eztabaidarako utzi *diligentzia / dilijentzia* auziak denbora luzea eraman du. Lehenbiziko formaren alde agertu dira zenbait euskaltzain (Kintana eta Knörr, besteak beste), horrelako hitzak *g* letraz idatzi behar direla esanez, non ez diren mailegu zaharrak. Aldiz, I. Sarasolak *j* letra defendatu du eta ahoskera alderdiak aipatu. Gaia orokorra denez gero, espreski ikertzea erabaki da. Beste ohar batzuk ez dira onartu. Adibidez, *diosal* izango da sarrera, ez *diosala*; *diti* eta *ditare*, ez *t-*. Azken bi hitz haue-taz bozketa izan da eta batzordearen proposamena nagusitu. *Dona* ez da agertuko zerrandan, bozketa ere horrela erabakirik. Onetsi da, berriz, *diskurtso* zerrendatik kentzea eta *dostatu* aipatzea, “hobe: *jostatu*” adieraziz.

Hiztegi batuko batzordeak erabakitzeke utziriko *doktrina / dotrina* bikotearen gainean luzaz eztabaidatu da. Beti *dotrina* idaztea eskatu du E. Knörrek bere oharretan. X. Kintanaren iritziz, *doktrina* hobetsi beharko litzateke. J.M. Satrustegirentzat, kultismoengatik ezin bazter daiteke euskararen ondarea. P. Goenaga eta beste euskaltzain batzuk Satrustegi jaunaren iritzikide azaldu dira. Azkenean, bozketen bidez bi idazkerak, *doktrina / dotrina*, onartu dira, esanahia bereizi gabe.

Halaber eztabaidarako ekarri den *doan / dohainik* pareta izan da minutu anitzetako mintzagaia. *Doan* “bizkaiera” markaz agertzea zen E. Knörren proposamena, eta *do-*

hainik forma orokor gisa. Ildo beretik mintzatu da X. Kintana. J. Haritschelharrek eta Tx. Peillenek ere *dohainik* aldeztu dute. I. Sarasolak ukatu du *dohainik* formaren indarra, eta J.M. Sarrustegik esan du hobe zela biak uztea. P. Goenagak galdetu du zein izango den *dohainik* formari dagokion izenondoa. Hau izan da erabakia, inor aurka azaldu ez delarik: *doan / dohainik*, *batetik*, eta, *bestetik*, izenondoa oraingoz *doako* bakarrik.

Hurrengo hitz saila, *dozena-entzutetsu*, banatu da egun. Oharrak urriaren 8rako behar dira igorri, hileko batzarra 18an izango baita.

Onomastika zerrendak

“Mundu zabaleko uharteak”, “Bibliako izen ohikoenak” eta “Greziako izen klasiko batzuk”, uztailako batzarrean aurkeztu zirenak, geroko utzi dira. Gai hauen gainean, Ibon Sarasola kezkatu agertu da, ezen Euskara Batuko batzordeak ez ditu aztertu zerrenda hauek, eta lana multzokatzen da. Euskaltzaindiak erabakizun premiatsu asko (esaterako, *guzti / guzi*) dituela esanez bukatu ditu bere hitzak.

J. Haritschelharrek esan du Onomastika batzordeari dagokiola zerrenda horiek batzarrera aurkeztea, salbu izen bereziak ez direnean (*uharte / irla*, adibidez). E. Knörr Onomastika batzordeburuak esan du orain arteko zerrenda guztiak Euskara Batuko batzordera pasa direla, osoko batzarrera aurkeztu baino lehen, eta elkarlanaren alde mintzatu da, Akademia bat eta bakarra baita, eta berdin hizkuntza. J.L.Lizundiak, lankidetzaren beharra azpimarratu ondoren, ponte izenei buruz erabakiak hartzeak presa gorria duela esan du.

A. Irigoyenek “Bibliako izen ohikoenak” eta “Greziako izen klasiko batzuk” txostenez berak egindako oharrak aipatu ditu. Gainera, esan du, ponte izenak direla eta, udal errodari begiratu behar zaiola. J.L. Lizundiak eskatu du oinarritzko materialaren eta material osagarriaren artean bereiztea, eta fotokopiatzeak dakazkien xahupenez gogoeta egitea.

X. Kintanak Hebreeraren Akademiatik hartu duen gutuna, osoko batzarraren karpetan sartua, azaldu du laburki. Izen judu batzuek, Kintana jaunaren ustez, bi forma izan litzakete, hala nola *Isaak* eta *Yitzak*.

Eskuarteoak

Hurrengo batzarra Tolosako udaletxean, urriaren 18an, izango dela aditzera eman du euskaltzainburuak. Jose Ariztimuño “Aitzol” idazle eta euskaltzalearen sortzearen mendeurrenkari eta heriotzaren 60. urteurrenkari egingo da hiri horretan. Jagon sailaren Jardunaldiak 18an eta 19an izango direla esan du berebat J. Haritschelharrek. Gai honen haritik, P. Charrittonek esan du P. Andiazabalek Ariztimuñoek Lafitteri idatziriko gutun batzuk aurkitu dituela. Tolosan berri ematea eskatuko zaio Andiazabal jaunari.

Urte bukaerari begira Euskaltzaindiaren diru egoeraz egin dute gero agerpena J.A. Arana diruzainak eta J.J. Zearreta ekonomia eragileak. J. Haritschelharrek Euskaltzaindiaren eta Gasteizko Udalaren artean goizean sinaturiko hitzarmena aipatu du ondoren. Hitzarmenaren testua eskuratu dute euskaltzainek. 1996ko urtean 8.000.000 pezeta ja-

soko du Akademiak, hizkuntzaren esparruan udalarentzat egin eta egingo diren zerbitzuen ordain. Hauen artean izango da udalbarruti osoko toponimia azterketa, batzorde-lanaren zuzendaritzapena, lantalde baten laguntza.

J.A. Arana Martija jaunaren zahar-saritzeagatik Azkue Liburutegian gertatu den hutsunea betetzeko deialdi publikoa egingo da. Epaimahaia J. San Martin, J.A. Arana, P. Altuna, E. Knörr euskaltzainek eta J.L. Lizundia idazkariorde-kudeatzaileak osatzea proposatu du euskaltzainburuak. Horrela erabaki da aho batez.

Azken ordukoak

P. Charritonek Jagon sailak antolatu dituen Jardunaldiei buruz hitz egin du. Xarles Videgainen artikulua bat aipatu du eta Tolosako Jardunaldietan sar litekeenez galdetu. Bestalde, Euskaltzaindiak euskararen jagote eremu horretan gehiago egin lezakeela esan du. E. Knörrrek erantzun du Jagon sailburua batzarrean ez delarik hobe puntu horiek harekin mintzatzea. Nolanahi ere den, esan du Tolosako egitaraua aspaldi hetsi zela. Bestalde, oroitarazi du azken urteotan Akademiak jagote eremuan burutu lana, bai eta Iparraldean ere, eztei zibiletako testuen alde, adibidez. Bukatu du esanez Euskaltzaindiak bakarrik inola ere ezin duela lan astun hori aurrera eraman eta agintariei dagokiela gehienbat eginkizuna.

X. Kintanak Michel Malherbe irakaslearen *Les langages de l'Humanité* izeneko liburuan (Paris, Robert Laffont, 1995) huts asko direla, eta ez guti euskarari eskainitako atalean, esan du. Kintana jaunaren arabera, gutun bat idatzi beharko litzaioke egileari. Idazkariak erantzun du gutunak baino aise egokiagoak direla aldizkari berezituetan argitaratzen diren kritikak.

A. Irigoyenek Euskaltzaindiari egin gutuna banatu da, Jose Luis Lizundiak Bilboko *El Correo Español-El Pueblo Vasco* egunkarian abuztuaren 21ean argitaratu zuen artiku baten ganean. Irigoyen jaunak dio egunkari horren bidez jakin zuela Euskaltzaindiak egin zuela International Congress of Onomastic Sciences delakoaren 1999ko biltzarra antolatzeke eskaria.

E. Knörr Onomastika batzordeburuak erantzun du Euskaltzaindiaren aurtengo otsail-leko batzar agiriaren pasarte bat, puntu horri dagokiona, irakurritz, hots, Akademiak eskari hori egitea eta Euskal Herriko Unibertsitateara jotzea, lankidetzeta bila, erabaki zen parrafoa. Esan du, gainera, euskaltzainek jakin behar dutela Alfonso Irigoyenek eta Ricardo Cierbidek asmo horren kontra hitz egin zutela elkargo horretan, Dieter Kremer buruzagitzakideak apirilaren 19an idatzi gutun batean ageri denez.

J.L. Lizundiak egunkarietan idazteko duen eskubidea defendatu du eta Euskaltzaindiaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen eskaria baztertzearan bortxa giroak izan zuen eragina berretsi, Aberdeen-en entzun ziren iritzia lekuko, deus ere kendu gabe biltzarren antolatzaile izendatu zen Santiagoren abantailei.

Eta beste gairik ez zela bukatu da batzarra.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Endrike Knörr,
idazkaria